

EBALUAZIOA LANBIDE HEZIKETAN

**HAREN KUDEAKETAN ERABILITAKO AGIRIEI
BURUZKO AZALPENAK**



**Erreb. 1: 2011ko
IRAILA**

EBALUAZIOA LANBIDE HEZIKETAN

HAREN APLIKAZIOARIETA PROZESUAN ETA HAREN KUDEAKETAN ERABILITAKO AGIRIEI BURUZKO AZALPENAK.

Maiatzaren 2ko 2/2006 lege organikotik (LOE) ERATORRITAKO HEZIKETA-ZIKLOAK.

1/1990 lege organikotik (LOGSE) eratorritako HEZIKETA-ZIKLOAK ezartzeko behin-behineko aldian.

Trantsizio-une batean gaude eta 2/2006 lege organikotik eta 1/1990 lege organikotik eratorritako heziketa-zikloak ditugu une honetan. Zalantza batzuk azaldu dira bi ikasketasistemak, biak aldi berean indarrean egotea eta batzuetatik besteetara igarotzeko prozesua erregulatzen dituzten arauak interpretatu eta aplikatzeko orduan. Horregatik, eta ezartzeko prozesuan izandako esperientziaren ondoren, **2010eko otsailaren 19ko AGINDUAREN**, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ezarri eta ebaluatzeari buruzkoaren, zenbait alderdi interpretatu behar dira eta, halaber, zenbait egoera zehaztu behar dira, agindu horretan esplizituki agertzen ez diren arren ikastetxeen zalantzak eta kontsultak eragiten dituztelako.

Era berean, argibide hauek hedatu behar dira, Lanbide Heziketaren oinarrizko dokumentazioa erregistratu eta betetzeko irizpideak bateratu ahal izateko. Iraungitzen den LOGSE sistemaren testuinguruan aplikatu diren 2003ko maiatzeko aurreko argibideen jarraipen gisa erredaktatzen dira hauek.

Vitoria-Gasteiz, mayo de 2011/2011ko maiatza

INSPECTOR GENERAL DE EDUCACIÓN/HEZKUNTZA IKUSKARI NAGUSIA

AURKIBIDEA

<u>0.- ZER DUGU BERRIA ORRAZKETA HONETAN?</u>	4
<u>1. EBALUAZIOARI BURUZKO LEGEZKO AURREKARIAK.</u>	
LOGSEren hasieratik.	4
Gaur egun.	4
<u>2. LANBIDE HEZIKETAKO EBALUAZIO-PROZESUARI, AGIRIEI ETA HAREN KUDEAKETARI BURUZKO OHAR OROKORRAK.</u>	
2.1. Ebaluazio-aktak.	6
Hezkuntza-premia berezietako ikasleak.	
Datu orokorren erregistroa.	8
Ebaluazioaren emaitzen erregistroa.	9
2.2. Espediente akademikoa.	11
2.3 Banakako ebaluazio-txostenak.	12
2.4 Ziurtagiri akademikoak.	13
<u>3. ZIKLO GUZTIETARAKO (LOGSE ETA LOE) IKASLEEN MUGIKORTASUNA.</u>	13
<u>4. HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN MENPE EZ DAUDEN IKASTETXEEK DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA ATXIKITA DAUDEN IKASTETXEETARA BIDALTZEA, ZAINDU DEZATEN.</u>	14
<u>5. BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK.</u>	
5.1. Araudi orokorra.	15
5.2. LOGSE zikloetako moduluen baliozkotzeak eta salbuespenak.	17
5.3 LOE zikloetako moduluen baliozkotzeak eta salbuespenak.	18
5.4 Normalean gertatzen diren kasuak.	21
<u>6 MATRIKULA BALIOGABETU ETA DEIALDIARI UKO EGITEA.</u>	25
<u>7.- DEIALDIEN KOPURURIK HANDIENA MODULU PROFESIONAL BAKOITZERAKO</u>	25
<u>8 DESAGERTUTAKO LOGE ZIKLOETARAKO DEIALDI ESPEZIFIKOAK.</u>	25
<u>9 BALDINTZAPEKO IZEN EMATEA.</u>	26
<u>ERANSKINAK:</u>	
Ikuskaritzaren web orrian dauden agiri ofizialen zerrenda.	
Matrikula baliogabetzea eta deialdiari uko egitea eskatzeko eredu zabalduak.	
LOE zikloak ezartzeko programa.	

0.- ¿QUÉ HAY DE NUEVO EN ESTA REVISIÓN?

REVISIÓN 1.

- Corregido error de la antigua página 7, párrafo 2º, que hacía referencia indebida al RD 362/2004. Se sustituye por el RD 1538/2006.
- En la página 7 se añade el párrafo siguiente:
 - *En este caso de convocatorias específicas de ciclos LOGSE extinguidos puede darse una casuística muy variada en función de que los módulos pendientes sean de 1º, de 2º o de ambos. Deberá cuidarse siempre la claridad en la documentación de la realidad en cada caso. En el caso de alumnos/as matriculados en 2º y con pendientes de 1º, se arrastrarán las calificaciones al acta de 2º, de modo que allí se pueda justificar las decisiones de acceso a FCT o propuesta de título. En el caso de alumnos/as con módulos pendientes de 1º y de 2º, puede requerirse la elaboración de un acta complementaria en la que se recojan las calificaciones obtenidas en ambos cursos y se realicen las oportunas propuestas de acceso a FCT o de título.*
- En la página 9 se añade una nota sobre el valor 5 de la calificación CV para el cálculo de la nota media. Se deberá aplicar a partir de curso 2012-13
- Se ha introducido un punto referente a las convalidaciones “cruzadas” entre ciclos de la misma familia profesional en el punto 5.3, casos claros que no deben ser resueltos favorablemente en el centro educativo (inmediatamente antes del apartado 5.3.1).
- En el 2º párrafo del punto 5.3.1 se ha añadido “A diferencia del caso de los ciclos LOGSE, para estas convalidaciones no importa que se trate de módulos entre ciclos de grado diferente.”
- En la página 18 se modifica el 2º párrafo del “resumen” del apartado 5.3, que queda así.
 - ⊖ *Serán objeto de convalidación los módulos profesionales, comunes a varios ciclos formativos LOE de igual denominación, duración, contenidos, objetivos expresados como resultados de aprendizaje y criterios de evaluación, establecidos en los Reales Decretos por los que se fijan las enseñanzas mínimas de los títulos de Formación Profesional (LOE). Por ello, se deberán convalidar también los módulos correspondientes a los alumnos/as que traigan expedientes de ciclos cursados en otras Comunidades Autónomas, aunque no coincida la duración con la establecida en la CAPV. En el caso de los módulos propios de la CAPV, se tomará como referencia cada Decreto de currículo.*
- Se ha introducido un nuevo apartado 7 “NÚMERO MÁXIMO DE CONVOCATORIAS PARA CADA MÓDULO PROFESIONAL”, con lo cual se renumera el resto a partir de dicho nuevo apartado.
- El índice queda modificado.

1.- EBALUAZIOARI BURUZKO LEGEZKO AURREKARIAK.

LOGSEren hasieratik.

1992ko urriaren 30eko aginduaren (1992ko azaroaren 11ko BOE), partzialki 1993ko apirilaren 2ko aginduaren bidez (1993ko apirilaren 15eko BOE) aldatu zenaren, bidez LOGSEk arautzen dituen erregimen orokorreko irakaskuntzen ebaluazio-txostenen funtsezko oinarriak ezarri ziren.

Geroago, 1994ko uztailaren 21eko aginduaren (1994ko uztailaren 26ko BOE) bidez arautu zen Lanbide Heziketako kalifikazio-liburua, ondorengo puntuak agertzen zituen agiri ofizial gisa: egindako ikasketak, ikasleek lortutako kalifikazioak, ikastetxez aldaketak, matrikulari uko egitea eta, curriculumaren arlo guztiak gainditu ondoren, titulua emateko ikaslearen eskaera.

Urriaren 30eko ECD/2764/2002 AGINDUAREN (2002ko azaroaren 8ko BOE), urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko 1/1990 lege organikoan ezarritako Berariazko Lanbide Heziketa egiten duten ikasleak ebaluatu, ziurtagiri akademikoak eman eta mugitzeko prozesuaren oinarritzko alderdiak arautzen zituenaren, bidez indargabetu zen lehen aipatutako 1994ko uztailaren 21eko agindua. Halaber, maiatzaren 2ko 2/2006 lege organikoaren (LOE) garapen gisa ematen den 1538/2006 errege dekretuaren bidez aldatu zen urriaren 30eko agindu hori.

Gaur egun.

1538/2006 errege dekretuaren (2007ko urtarrilaren 3ko BOE), hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duenaren, bidez legezko esparru berri bat sortu zen, LHko ikasleen ebaluazioan eta ikasle horien mugikortasuna bermatzeko erabili beharreko funtsezko dokumentazioari buruzkoa. 15. artikuluan hau xedatzen du: **ikaslearen espediente akademikoa, ebaluazio-aktak eta banakako ebaluazio-txostenak** dira irakaskuntza horiek ebaluatzeko prozesuaren agiriak, eta alde batera uzten da aurreko araudian agertzen zen Lanbide Heziketako kalifikazio-liburua. Halaber, hau zehazten du: **ziurtagiri akademikoak eta banakako ebaluazio-txostenak izango dira** Lanbide Heziketako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen **mugikortasuna bermatzeko funtsezko agiriak**. [Bere aldetik Errege Dekretu hori indargabetu egin du 2011ko 1147 Errege Dekretuak](#) (uztailaren 30eko BOE), eta laster garatuko da EAEn.

Otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren (martxoaren 5eko EHAA) VI. kapituluan araututa dago EAeko Berariazko Lanbide Heziketako (**LOE heziketa-zikloak**) ikasleen ebaluazio-prozesua. 25. artikuluan ebaluazio-prozesuan erabili beharreko dokumentazio akademikoari buruz ere hitz egiten da.

Azkenik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren **2010eko otsailaren 19ko AGINDUA** (martxoaren 24ko EHAA), Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ezarri eta ebaluatzeko prozesua arautzen duena, eman da argitara, LOEren ondoren araututako heziketa-ziklo berriei aplikatzeko. Zehatzago esanda, 10. artikuluan ebaluazio-prozesuaren agiri desberdinak erabiltzeko modua arautzen da.

2010eko otsailaren 19ko AGINDU honen atarikoan hau adierazten da: ekainaren 30eko 806/2006 errege dekretuak, maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoaren bidez ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia zehazten duenak, xedatutakoaren arabera, 2/2006 lege organiko hori aplikatzeko epearen barruan osatu beharko da Lanbide Heziketako ikasketen eta curriculum berrien titulazioak ezartzeko prozesua. Halaber, hau eranstean du: aurreko paragrafoan aurreikusitako ezarpena gertatu arte, **indarrean jarraituko dute** Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren **urriaren 3ko 1/1990 lege organikotik eratorritako titulazioek eta curriculumek**.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoan heziketa-zikloak erabat ordezkatu arte, 1997ko uztailaren 15eko aginduaren (1997ko urriaren 3ko EHAA) (1998ko abenduaren 3ko aginduaren bidez aldatua, 1999ko otsailaren 3ko EHAA) bidez arautuko da Berariazko Lanbide Heziketako ikasleen ebaluazio-prozesua; LOE zikloetarako, ordea, aipatutako azken agindua (2010eko otsailaren 19ko AGINDUA) aplikatu beharko da.

Irakasle-taldeak, ikastetxearen curriculum-proiektuaren eta Hezkuntza Sailak ematen dituen aginduen arabera, izango du heziketa-zikloa osatzen duen lanbide-modulu bakoitzean ikasleek lortutako ikaskuntza maila behar bezala baloratzeko erabakitzen den egitura eta ebaluazio-prozesua ezartzearen ardura.

Hezkuntza-premia berezietako ikasleei dagokienez, 1998ko uztailaren 24ko agindua (1998ko uztailaren 31ko EHAA), hezkuntza-premia berezietako ikasleentzako curriculum-egokitzapen garrantzitsuetarako baimena eta egokitzapen horiek unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren etapa desberdinetan egin, garatu eta ebaluatzeko prozedura arautzen dituen, eta 1998ko uztailaren 30eko agindua (1998ko abuztuaren 31ko EHAA), hezkuntza-premia berezietako ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dituen, aplikatuko dira.

Ez da ere abenduaren 2ko 201/2008 DEKRETUAK, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei buruzkoak, 9. artikuluan ezartzen duena. Dekretu horrek ikasleen errendimendu akademikoa era objektiboan baloratzeko eskubideaz hitz egiten du.

2. LANBIDE HEZIKETAN EBALUAZIO-PROZESUARI BURUZKO OHAR OROKORRAK. AGIRIAK ETA HAIEN KUDEAKETA.

2.1 Ebaluazio-aktak.

Hezkuntza Ikuskaritzaren web orrian eman dira argitara hezkuntza-etapa desberdinetako ikasleen ebaluazio-prozesuan erabili beharreko agirien ereduak eta hiperesteka honen bidez orri horretara sar daiteke:

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-inspec/es>

Ebaluazio-bilkura bakoitzaren helburu espezifikoak zeintzuk diren alde batera utzita, taldeko irakasle guztiek hartu behar dute bilkura horietan parte eta irakasle tutorearen koordinaziopean egingo dira. Tutore horrek, aldeztatik gaiak eztabaidatu eta

aztertu ondoren, agiri batean idatziko ditu aurrera eraman diren ebaluazio-jardueren emaitzak eta hartzen diren erabakiak.

Ebaluazio-bilkura partzialen emaitzak ikastetxeak berak ezarritako agirien ereduaren arabera dokumentatuko dira. Taldeko tutoreak zainduko ditu.

Ebaluazioari buruzko aginduen eranskinetan zehazten diren eta Ikuskaritzaren web orrian dauden akta-ereduak erabiliz dokumentatu behar dira, derrigorrean, azken ebaluazio-bilkura guztiak (LOGSE eta LOE).

Betetako azken akta horiek ikastetxean geratuko dira, ikastetxeko idazkariaren zaintzapean, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxe publiko bat bada. Hezkuntza-administrazioaren menpe ez dauden ikastetxeen kasuan, aktaren originala eta bi kopia atxikita dauden ikastetxe publikoari emango dizkiote, alderatzeko. Konpultsatutako bi kopiak atxikitako ikastetxeari itzuliko zaizkio. Idazkariak edo, barne araudiaren arabera, horren baliokidea den karguak zainduko du bata eta Ikuskaritza Zerbitzuari emango zaio bestea.

Ikasleari emango zaio, idatziz, ebaluazio-bilkuren emaitzen berri eta, besteak beste, datu hauek adieraziko dira: moduluetan kalifikazioak bukatu duten ikasleen kasuan eta, gainontzekoen kasuan: eskuratu dituzten mailak, jorratu diren helburuetan alderdi positibo eta negatiboak eta, ondorioz, izan daitezkeen akatsak orekatzeko ikasleek indartu beharko dituzten alderdiak.

Kalifikazio negatiboak dituzten ikasleen kasuetan, kalifikazio negatibo horiek aparteko deialdian gainditzeko ezartzen diren proba edo jarduera desberdinen berri emango die ikasle horiei irakasle bakoitzak.

Hezkuntza-premia berezietako ikasleak.

Hau hartu behar da kontuan: ezin da Lanbide Heziketan inolaz ere aplikatu curriculum ofizialaren oinarrizko alderdiak ez betetzea dakarren curriculum-egokitzapenik; badago, ordea, curriculumera iristeko bideak egokitzeko aukera.

Heziketa-zikloetan eman beharreko eskola-denbora malgutzea eskatzen duten hezkuntza-premia berezietako ikasleen kasuan, 1998ko uztailaren 30eko aginduak (1998ko abuztuaren 31ko EHAA), hezkuntza-premia berezietako ikasleak eskolatzeko irizpideak eta ikasle horiei hezkuntza-sistemaren etapa desberdinetan behar bezalako arreta emateko baliabideak zehazten dituenak, 11. artikuluan xedatzen duena hartuko da kontuan. Kalifikazioak erregistratzeko jarraibideak dagoeneko erabili diren berberak izango dira.

Datu orokorren erregistroa.

Akta bakoitzaren idazpuruan akta horretan dokumentatzen den ebaluazio-bilkuraren izena agertuko da. Informazio hori aurrealdean eta atzealdean adieraziko da.

LOE zikloen akten idazpuru berean heziketa-zikloaren titulua ezartzen duen errege dekretuaren erreferentziak agertuko dira eta, azkenik, heziketa-zikloaren curriculuma ezartzen duen dekretua. LOGSE zikloen akten kasuan, haietarako adierazitako egiturak jarraituko du, [2006ko 1538 Errege Dekretuarekin](#), LOGSE Lanbide Heziketaren tituluak arautzen zituenak, heziketa-zikloaren titulua ezartzen duen errege dekretuak eta, azkenik, EAEn heziketa-zikloaren curriculuma ezartzen duen dekretuak, balego, xedatutakoaren arabera.

Desagertutako LOGSE zikloen deialdi espezifiko emaitzak kalifikatzeko, LOGSE zikloetarako ezarritako akta-ereduak erabiliko dira eta, gainera, haien goiburuan dokumentatzen den ebaluazio-bilkuraren mota adieraziko da.

Ebaluazio-akta / Acta de evaluación:

- 1./2./3. kurtsoetako gainditu gabeko moduluen 1. ohiko deialdia,
- 1./2./3. kurtsoetako gainditu gabeko moduluen 1. aparteko deialdia,
- 1./2./3. kurtsoetako gainditu gabeko moduluen 2. ohiko deialdia
- 1./2./3. kurtsoetako gainditu gabeko moduluen 2. aparteko deialdia

(Behar dena jarri)

(2. artikulua, 2010eko otsailaren 19ko agindua, martxoaren 24ko EHAA)

[LOGSE ziklo iraungien deialdi espezifiko](#) kasu honetan sor daiteke askotariko kasuistika bat gainditu gabeko moduluen ezaugarriaren arabera: 1.ekoak, 2.ekoak edo bietakoak. Beti beharko da zaindu argitasuna errealitatearen dokumentazioan kasu bakoitzean. 2.ean 1. osoa gainditu gabe matrikulatu diren ikasleen kasuan, kalifikazioak 2.eko aktara eramango dira, FCTn sartu edo titulua proposatzeko erabakiak bertan justifikatu ahal izateko. 1. eta 2.eko moduluak gainditu gabeko ikasleen kasuan, aukera dago akta osagarri bat egitea eskatzeko; agiri horretan jasoko dira bi ikasurteetan lortutako kalifikazioak, eta egingo FCTn sartzeko edo titulurako proposamen egokiak.

LOE akta guztietan zikloa osatzen duten moduluen kodeak eta izenak idatziko dira, lehenengotik azkenera, aurrealdean eta atzealdean. *Heziketa-zikloaren dekretuan zehazten dena izango da lanbide-moduluen zerrendaren ordena*. LOGSE zikloen moduluak ez dute kode ofizialik eta, horregatik, ez da bat bera ere adieraziko.

Akta guztietan zikloan matrikulatutako ikasle guztien izenak idatziko dira, “bigarren azkena “ (LOE zikloak) edo “apartekoa “ (LOGSE zikloak) deritzoten saioen aktetan izan ezik. Haietan saio horietan ebakutzen diren ikasleen izenak besterik ez dira agertuko. Bi kasuetan ikasleak lehen deituraren alfabeto-ordenaren arabera ordenatuko dira.

[Lantokietako Prestakuntzara joateko edo titulazioa emateko erabakia hartzekoa](#) errezteko, 2.maila baino lehenagoko aktetan dauden emaitzak herrestan jasoko dira.

Bi orri erabiliz gero, biak orri berean sartuko dira, aurrealde eta atzealde gisa. Aktaren atzealdearen beheko aldearen datuak beteko dira eta kasu bakoitzean behar diren pertsonen sinadura autografoak idatziko dira. Haien azpian sinatzailearen izen-deiturak eta kargua, behar izanez gero, agertuko dira. Sinaduren ondoan ikastetxearen zigilua sartuko da.

Datuak betetzean akatsik izanez gero, zuzenketak idazkariaren eginbidearen bidez egiaztatu beharko dira, ahal izanez gero orri berean eta zuriz geratzen diren tarteetan.

Ebaluazio-emaitzen erregistroa

EAEEn argitara emandako heziketa-zikloaren curriculumean ez dagoen modulu bat ezin izango da aktetan agertu.

Lanbide-moduluen azken ebaluazioa **1etik 10era bitarteko zifretan, hamartarrik gabe**, formulatuko diren kalifikazioen terminoetan adieraziko da. Lantokiko Prestakuntza lanbide-modulua **gai/ez gai** terminoetan kalifikatuko da.

5eko edo 5etik gorako kalifikazioak positibotzat joko dira; gainontzekoak negatibotzat. Heziketa-ziklo bat gainditzeko, osatzen duten modulu guztietan ebaluazio positiboa lortu beharko da.

Lan-praktikarekin bat etortzeagatik konbalidatu edo salbuetsi diren lanbide-moduluak (Lantokiko Prestakuntza modulua) <**konbalidatuta**> **edo** <**salbuetsita**> gisa erregistratuta geratuko dira ebaluazio-aktetan eta espediente akademikoan eta ez dira kontuan hartu behar zikloaren azken kalifikazioa kalkulatzeko orduan.

LOEtik eratorritako heziketa-zikloaren azken kalifikazioa bi zifra hamartarrekin adieraziko da eta osatzen duten moduluen, denak gainditu ondoren, kalifikazio numerikoen batezbesteko nota gisa lortuko da. [2011ko 1147 Errege Dekretuan](#) adierazia dagoenaren arabera, modulu baliozkotuei 5 kalifikazioa jarriko zaie batezbesteko nota kalkulatu izanaren eraginetarako, 2012-13 ikasturteaz geroztik.

LOGSE zikloen kasuan, azken kalifikazioa hamartar bakar batekin adieraziko da eta osatzen duten moduluen, denak gainditu ondoren, kalifikazio numerikoen batezbesteko nota gisa lortuko da.

Oro har, EZ AURKEZTUAREN kalifikazioa ezin da azken deialdi lehenean agertu (etengabeko ebaluazioaren eskubidea galtzen denean izan ezik); bai, ordea, heziketa-zikloa (LOE) osatzen duten modulu desberdinen azken deialdi bigarrenen. Heziketa-zikloen ebaluazioa etengabeko ebaluazioa da eta horrek ikasleak lehen instantzian (etengabeko ebaluazioaren eskubidea galtzen ez bada) kalifikazio bat izatea dakar, araudi honetan adierazitako baldintzetan matrikula balioabetzen ez bada edo deialdiari uko egiten ez bazaio.

LOGSE zikloen aktetarako, EZ AURKEZTUAREN kalifikazioa ez da inolaz ere onartzen.

Matrikula balioabetzeko baimena ikaslearen espedienteari gehituko zaio, espediente hori ez da aktetan agertuko, eta aldeko ebazpena izan duen uko egitea ebaluazio-aktan idatziko da, <**uko egitea**> esaerarekin, baita ebaluazio-prozesuaren gainontzeko agirietan ere.

Egindako heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-modulu guztietan kalifikazio positiboa izateak ematen dio ikasleari Teknikariaren edo Goi Teknikariaren titulua lortzeko eskubidea. Titulua emateko proposamena heziketa-zikloaren azken ebaluazioaren aktetan jasota geratuko da.

Orain arte egiten den era berean, Lantokiko Prestakuntzara sartzeari edo titulazioari buruzko erabakiak hartu ahal izateko informazioa edukitzeko asmoz, LOGSE zikloetako 2. edo 3. kurtsoetako aktetan aurreko kalifikazioak arrastatuko dira. Lantokiko Prestakuntzara sartzeari edo titulazioari buruzko erabaki hori azken ebaluazioaren aktan dokumentatuko da. Akta horretan erabaki horietarako exijitutako baldintzak betetzen direla agertuko da.

Ebaluazio-aktetan erabili beharreko laburdurak.

Espazio-faltarengatik zenbait zirkunstantzia idazteko laburdurak erabiliz gero, laburdura horiek aktaren orri-oinean argitu beharko dira. Hauek erabiliko dira, LOE eta LOGSE zikloetarako:

Konbalidatutako modulua	CV
Salbuetsitako modulua	EX
Salbuespen partziala duen Lantokiko Prestakuntza modulua	EXp
Deialdiari uko egitea duen modulua	RE
Homologatzearen zain dago sartzeko aukera ematen duen titulua	PHT
Konbalidatzearen zain dagoen modulua	PCV

Eskatu duten konbalidazioari buruzko ebazpena jasotzearen zain dauden ikasleen kasuan, “KONBALIDATZEAREN ZAIN “ idatziko da hiruhilekoko ebaluazio-aktetan, lortutako kalifikazioekin batera. Azken ebaluazio-aktan egoera erregularizatuko da, bai konbalidatu gisa edo behar den kalifikazioarekin.

LOEtik eratorritako heziketa-zikloen kasuan, **NP (EA)** laburdura ondorengo kasuetan erabili ahal izango da:

Azken deialdi bigarrenera aurkeztu ez izanagatik ebaluatu ez den modulua.
Ikastetxeak zehaztutako probetara aurkeztu ez izanagatik ebaluatzearen zain dagoen 1. kurtsoko modulua.
Etengabeko ebaluazioaren eskubidea galdu ondoren ezarritako probetara aurkeztu ez izanagatik ebaluatu ez den modulua.
Bidalitako lanak aurkeztu ez izanagatik ebaluatu ez den proiektuaren modulua.

2.2 Ikaslearen espediente akademikoa.

Ikasleak matrikulatzen diren ikastetxeak bete eta zaindu beharko ditu heziketa-ziklo batera sartzen diren ikasleen espediente akademikoak eta 2010eko otsailaren 19ko aginduaren (LOE zikloak) II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izango dira. LOGSE heziketa-zikloen kasuan, haien ebaluazio-aginduan aurreikusitako eredu espezifikoak erabiliko da.

Halaber, ikasle bat, ikastetxe batean hasi dituen heziketa-ziklo baten ikasketak jarraitzeko asmoz, beste ikastetxe batean matrikulatzen bada, matrikulatu den ikastetxean espedientea irekiko zaio eta ikastetxe horri agiri horren 3. atalean adierazten diren agiri ofizialak, lehenago matrikulatuta egon den ikastetxeak bidali beharko dituenak, gehituko zaizkio.

Horregatik, matrikula egiten den unean, ikastetxe bakoitzak espediente bat irekiko du, heziketa-ziklo bakoitzeko ikasle bakoitzarentzat. Ikaslea lekuz aldatzeagatik beste ikastetxe batzuetatik jasotako kalifikazio-orriak espedienteari gehituko zaizkio eta haien kalifikazioak ez dira berriro transkribatu beharko.

Betetako espedienteak, betiere, matrikulazioa gertatzen den ikastetxean geratuko dira, ikastetxeko idazkariaren zaindapean. Hezkuntza-administrazioaren menpe ez dauden ikastetxeen kasuan, espedientearen kopiak, geroago adieraziko diren terminoetan, atxikita dauden ikastetxe publikoei emango dizkiete.

Ikastetxeko idazkariak, edo BAn (RRI) aurreikusitako beste organo batek hezkuntza-administrazioaren menpe ez dauden ikastetxeen kasuan, izango du espediente akademikoa zuzen eta behar bezala betetzearen ardura.

Heziketa-zikloko Lanbide Heziketaren titulua arautzen duen errege dekretuaren eta EAEn heziketa-zikloaren curriculum ezartzen duen dekretuaren erreferentziak agertzen dira 1. orriaren goiburuan. Ondoren, ikaslearen datuak (hots, matrikula-data, espedienteraren zenbakia, datu pertsonalak), haren aurrekari akademikoak, datu mediku eta psikopedagogiko nabarmenak (baldin badaude) eta gerta daitezkeen helbide-aldaketak idatziko dira.

2. orrian ikasleak eskaintzaren deialdi eta modalitate desberdinetan lortutako kalifikazioak idatziko dira: lehen kurtsoa, bigarren kurtsoa eta aparteko deialdia. Heziketa-ziklo hau egiteko eskaintzaren modalitate desberdinak (osoa, partziala, librea, urrutikoa) erabiltzeagatik kalifikazioetarako orria nahikoa ez bada, behar adina 2. motako orri gehituko lirarteke.

Lanbide-moduluak aktetan duten ordena berean zerrendatu behar dira (*zikloko oinarritzko curriculum-diseinuan agertzen diren ordena*).

2.3 Banakako ebaluazio-txostenak.

Banakako ebaluazio-txostenak lehen aipatutako araudian definitzen dira. LOGSE eta LOEko erregimen orokorreko irakaskuntzak ebaluatzeko prozesuaren oinarritzko eta derrigorrezko agirien artean daude.

Garrantzi berezia hartzen du, ikasturteak bukatu aurretik ikasleen lekualdaketak gertatzen direnean, eta ikasleen mugikortasuna bermatzen duen ebaluazio-prozesutik eratorritako baldintza formaletako bat da.

Formatu librekoak dira, lekualdaketaren kasuan derrigorrezkoak dira eta zikloko irakasle tutoreak izenpetu beharko ditu.

Edukiaren txostenak, gutxienez, alderdi hauek agertu beharko ditu:

- Zikloaren helburu orokorretan eta modulu bakoitzean (LOGSE) adierazitako gaitasuna zein mailatan lortu diren baloratzea.
- Heziketa-zikloaren (LOE) lanbide-moduluetan adierazitako helburuak eta ikaskuntza-emaitzak zein mailatan lortu diren baloratzea.
- Ikaskuntzaren kalifikazio partzialak edo balorazioak, eman baldin badira.
- Behar izanez gero, hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa.
- Beste datu interesgarri batzuk.

Banakako txostenak egiteko, Hezkuntzaren web orritik eredu-proposamen bat deskargatu ahal izango da.

2.4 Ziurtagiri akademikoak.

LOE heziketa-zikloetarako, 2010eko otsailaren 19ko aginduak IV. eta V. eranskinetan xedatutako formatuen arabekoak izango dira.

LOGSE heziketa-zikloetarako, lehen aipatutako aginduak X. eta XI. eranskinetan ezarritako ereduaren arabera egingo da ziurtagiria.

Bi kasuetan Ikuskaritzaren web orritik ere deskargatu ahal dira.

Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeek emango dituzte, bai beren ikasleentzat, bai atxikitako ikastetxeetako ikasleentzat. Ikastetxeko idazkaria izango da behar bezala betetzearen arduraduna, zuzendariaren oniritziarekin. Ikastetxe horiek betiere ematen dituzten ziurtagirien kopia bat gordeko dute.

Ikasketa partzialen ziurtagirietan, LOGSE eta LOE zikloetarako, bereziki garrantzitsua izango da adierazten diren kalifikazioak zein deialditan lortu diren laukian adieraztea, gainditutako eta gainditu gabeko moduluetan.

3. IKASLEEN MUGIKORTASUNA ZIKLO GUZTIETARAKO (LOGSE ETA LOE).

Atal hau eta hurrengoaz azaltzeko, printzipio hauetatik abiatzen gara:

- **Ebaluazio-akten jatorrizko aleak, betiere, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxe publikoetako idazkarien zaintzapean geratuko dira, ikastetxe horien ebaluazio-aktak eta atxikitako ikastetxeenak. Ziurtagiri guztiak ikastetxe publiko horietan egingo dira.**
- **Heziketa-ziklo eta ikastetxe bakoitzean matrikulatutako ikasle bakoitzeko espediente bat irekiko da. Espediente horiek betiere matrikulazio-ikastetxean egongo dira eta behar diren kopiak bidaliko dira.**

Horregatik, LOGSEtik eta LOEtik eratorritako heziketa-zikloetarako, ikaslea ikasturteak bukatu aurretik beste ikastetxe batera lekuz aldatzen bada, horrela jokatuko da:

- ◆ **Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxe batetik izaera bereko beste batera aldatzea:** destinoko ikastetxeari espediente akademikoaren kopia konpultsatu bat, ikaslearen ziurtagiri akademikoarekin batera osatu gabeko zikloetarako, bidaliko zaio, **2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK V.** eranskinean (LOE zikloak) edo XI. eranskinean (LOGSE zikloak) xedatutakoaren arabera. Behar izanez gero, banakako ebaluazio-txostena ere bidaliko da.
- ◆ **Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxe batetik menpekoa ez den beste batera aldatzea:** destinoko ikastetxearen eskariz, jatorrikoak espedientearen kopia konpultsatu bat eta behar izanez gero, banakako ebaluazio-txostena bidaliko dizkio ikastetxe eskatzailea atxikita dagoen ikastetxe publikoari, osatu gabeko zikloetarako ikaslearen ziurtagiri akademikoarekin batera, **2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK V.** eranskinean (LOE zikloetarako) edo XI. eranskinean (LOGSE zikloetarako) xedatutakoaren arabera. Espedientearen jatorrizko alea jatorrizko ikastetxe publikoan zainduko da. Destinoko ikastetxeak, atxikita dagoen ikastetxe publikoaren bidez, dokumentazioa jaso eta espediente-agiri bat irekiko du. Idazkariak, edo BAN zehaztutako kide bakarreko beste organo batek, espediente berri horri jatorrizko ikastetxeak bidalitako datuak helaraziko dizkio.
- ◆ **Hezkuntza-administrazioaren menpe ez dagoen ikastetxe batetik menpe dagoen beste batera aldatzea:** destinoko ikastetxearen eskariz, jatorrizko ikastetxeak espediente akademikoaren kopia bat bidaliko dio atxikita dagoen ikastetxe publikoari, baita, behar izanez gero, banakako ebaluazio-txostena ere. Ikastetxe publikoak, halaber, espedientearen kopia konpultsatua eta aipatutako txostena destinoko ikastetxeari helaraziko dizkio, osatu gabeko zikloetarako ikaslearen ziurtagiriarekin batera, **2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK V.** eranskinean (LOE zikloak) edo XI. eranskinean (LOGSE zikloak) xedatutakoaren arabera. Espedientearen originala jatorrizko ikastetxean egongo da. Destinoko ikastetxeak beste espediente-agiri bat irekiko du eta idazkariak jatorrizko ikastetxeak bidalitako datuak agiri horretara eramango ditu.
- ◆ **Hezkuntza-administrazioaren menpe ez dagoen ikastetxe batetik ez dagoen beste batera aldatzea:** destinoko ikastetxearen eskariz, jatorrizko ikastetxeak espedientearen kopia bat eta, behar izanez gero, banakako ebaluazio-txostena bidaliko dizkio atxikita dagoen ikastetxe publikoari. Ikastetxe publiko honek espedientearen kopia konpultsatua eta aipatutako txostena bidaliko dizkio

eskatzailea atxikita dagoen ikastetxe publikoari, osatu gabeko zikloetarako ikaslearen ziurtagiri akademikoarekin batera, **2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK** V.eranskinean (LOE zikloak) edo XI. eranskinean (LOGSE zikloak) xedatutakoaren arabera. Espedientearen jatorrizkoa jatorrizko ikastetxean egongo da. Destinoko ikastetxeak, atxikita dagoen ikastetxe publikoaren bidez, dokumentazioa jasoko du eta beste espediente-agiri bat irekiko du. Idazkariak edo ikastetxearen BAN zehaztutako kide bakarreko beste organo batek espediente-agiri horretara eramango ditu jatorrizko ikastetxeak bidalitako datuak.

4. HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN MENPE EZ DAUDEN IKASTETXEEK DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA ATXIKITA DAUDEN IKASTETXEETARA BIDALTZEA, ZAINTZEKO.

Heziketa-zikloak egiten dituzten ikasleen dokumentazio akademikoa kudeatzeko sistema informatiko bat ezarri arte, hezkuntza-administrazioaren menpe ez dauden ikastetxeek jarraian adierazten diren agiriak atxikita dauden ikastetxe publikoei helarazi beharko dizkiete:

Ikasturte bakoitzaren hasieran, hezkuntza-administrazioaren menpe ez dauden ikastetxeek ikasle bakoitzaren espedientearen kopia, behar bezala betea, eta matrikula-orri ofizialaren alea bidaliko dizkiete atxikita dauden ikastetxe publikoei. Ikasle berrien kasuan, heziketa-ziklora sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako jatorrizko agiriak ere bidaliko dira.

Ikasturtean zehar, eta kasuak gertatzen direnean, hezkuntza-administrazioaren menpe ez dauden ikastetxeek eskaerei lotutako agiriak bidaliko dizkiete atxikita dauden ikastetxe publikoei, baita, hezkuntza-administrazioaren menpe ez dagoen ikastetxean ebatzi diren uko egiteen, konbalidazioen eta salbuespenen kasuan, haien ebazpena ere. Jatorrizko ikastetxean haien kopia bat gordeko da.

Ikasturte bakoitzaren bukaeran, hezkuntza-administrazioaren menpe ez dagoen ikastetxe bakoitzak jatorrizko alea eta ebaluazio-akten bi kopia bidaliko dizkio atxikita dagoen ikastetxe publikoari, han bertan alderatu eta konpultsatzeko. Halaber, ikasleen espediente akademikoaren ikasturte honetako kalifikazio-orrien kopiak ere bidaliko ditu, ikasleek erabili dituzten deialdiak behar bezala kontrolatzeko. Matrikula baliogabetzea onartzeko ebazpenen kopia bat artxibatuko du, aldez aurretik, ikastetxe publikoak. Akta bakoitzaren jatorrizko alea ikastetxe publikoan geratuko da. Honek, alderatu ondoren, bi kopiak atxikita dagoen ikastetxeari itzuliko dizkio eta ikastetxe honek haietako bat Ikuskaritza Zerbitzuari entregatuko dio.

Gainera, **heziketa-ziklo bakoitzaren bigarren kurtsoaren bukaeran,** eta **2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK** 10. artikulua 6. puntuan xedatutakoaren arabera, ikastetxe publikoek atxikita dauden ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiri bat jasoko dute. Ziurtagiri horretan heziketa-zikloa bukatu duten ikasleen zerrenda agertuko eta aurreko puntuan ikasle guztiei adierazitako dokumentazioari gehituko zaio.

Ikastetxe batek funtzionatzeari uzten badio, hezkuntza-administrazioak hartu beharko du ikastetxe horren dokumentazio akademikoa lekuz aldatu eta zaintzeari buruzko erabakia.

5. KONBALIDAZIO ETA SALBUESPENEI BURUZKOA.

Ikasleek izango dute araudian adierazten diren **konbalidazio edota salbuespenak** edukitzeko eskubidea. Horretarako, heziketa-ziklo horretan matrikulatuta egon behar du ikasleak eta ikaslearen espedientea jasota dagoen ikastetxe publikoko (LOGSE zikloen kasuan) edo ikastetxe publiko edo pribatuko (LOE zikloen kasuan) zuzendariak konbalidazio edo salbuespen horiek ebatziko ditu. Interesatuak horrela eskatzen badu, organo eskudunak tramitatuko ditu, indarreko legeriak espresuki agertzen ez baditu. Esan den legez, LOGSE zikloen kasuan, ikastetxe publikoko zuzendariak du, betiere, konbalidazioak egiteko eskuduntza.

Konbalidatzeko eskaerari buruzko ebazpenak behar bezala arrazoitua egon beharko du, pertsona ebazpenarekin ados ez badago defenditu eta erreklamazioa egiteko aukera emateko asmoz. Geroago, interesatuari jakinaraziko zaio. Ebazpenaren kopia bat haren espedienteari gehituko zaio.

Eskatu duten **konbalidazioa jasotzearen zain dauden ikasleen kasuan**, “KONBALIDATZEAREN ZAIN “ idatziko da hiruhilekoko ebaluazio-aktetan, lortutako kalifikazioekin batera. Azken ebaluazio-aktan egoera erregularizatuko da, bai konbalidatu gisa, bai behar den kalifikazioarekin.

5.1. Konbalidazio eta salbuespenetarako araudi orokorra.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloen lanbide-moduluak, Espainia osoan ematen direnak eta hezkuntza-sistemaren Lanbide Heziketaren tituluak ezartzen dituzten errege dekretuetan, edo curriculum dekretuetan, araututa daudenak, konbalidatu ahal dira.

Apirilaren 30eko 777/1998 errege dekretuak (1998ko maiatzaren 8ko BOE) eta 2001eko abenduaren 20ko aginduak (2002ko urtarrilaren 9ko BOE), ECD/1842/2002 aginduaren bidez (2002ko uztailaren 19ko BOE) zuzenduak, arautzen dituzte 1/1990 lege organikotik (LOGSE) eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzak. Betiere ikaslea matrikulatuta dagoen **ikastetxe publikoko zuzendariak**, edo ikastetxe publiko hori atxikita dagoen ikastetxeak, ebatziko ditu konbalidazio horiek.

2/82006 lege organikotik (LOE) eratorritako zikloetarako, lehen aipatutako 1538/2006 errege dekretua, 44. eta 45. artikuluetan konbalidazioetarako esparru berri bat ezartzen duena, aplikatu behar da. EAEn arau korrelatiboa ematen da, 32/2008 dekretuaren 27. artikuluan bidez. LOEtik eratorritako tituluak arautzen dituzten errege dekretuetan eta LOEren irakaskuntzak EAEn ezartzen dituzten dekretuetan heziketa-ziklo bakoitzerako konbalidazio espezifikoak agertzen dira, baita 2010eko otsailaren 19ko aginduaren 12. artikuluan ere. Kasu honetan, **ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko**, publikoa edo pribatua izan, **zuzendariak** betiere ebatziko ditu.

Konbalidazio bat eskatzeko baldintza orokorrak hauek dira:

- Konbalidatu nahi diren irakaskuntzetan baimendutako ikastetxe batean matrikulatzea.
- Matrikula egin den ikastetxeko zuzendaritzari eskatzea.
- Akademikoki balio duen prestakuntza bat gainditu izana, konbalidatu ahal diren heziketa-zikloetako lanbide-moduluaren azken gaitasunak, ikaskuntzen emaitzak eta gutxienezko edukiak erabat sartuko dituen. 1538/2006 errege dekretuak 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoaren arabera, zenbait lanbide-modulu ere konbalidatu ahal izango dira, Trebakuntza Profesionalen Katalogo Nazionalako gaitasun unitateak egiaztatzeagatik, titulu bakoitza arautzen duen legeriaren arabera (LOE).
- Egindako ikasketen ziurtagiri akademiko ofiziala erakustea, edo alegatzen den profesionaltasun-ziurtagiria edo, Trebakuntzei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 lege organikoak 8.2. artikuluan xedatutakoa betez, lortutako egiaztatze partzialen ziurtagiri ofiziala.

Betiere aplikatzeko indarreko legeria badago, eskatzailea matrikulatu den ikastetxe publiko edo pribatuko zuzendaritzak, LOE irakaskuntzen kasuan, edo matrikulatu den ikastetxe publikoko edo pribatua atxikita dagoen ikastetxeko zuzendaritzak, LOGSE irakaskuntzen kasuan, ebatzi beharko dituzte konbalidazioak.

Konkretuki azaltzen duen araudirik egon ezean, Hezkuntza Ministerioko Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak banaka ebatzi behar ditu konbalidatzeko eskaerak, Autonomia Erkidego bakoitzean ezarritako bideak erabiliz. Ikastetxea pribatua bada, atxikita dagoen ikastetxe publikoaren bidez, LOGSE irakaskuntzen kasuan, gauzatuko da tramitea.

Eskuduntzak dituen zuzendariak, betiere arrazoizko moduan, ebatziko ditu, ezarritako denboran eta behar bezala, aurkezten zaizkion konbalidatu edo salbuesteko eskaerak, onartzeko eta atzera botatzeko.

Era positiboan ebatzi diren konbalidazio edo salbuespenak jarraian esaten den eran erregistratuko dira ikaslearen espediente akademikoan, ebaluazio-aktetan eta ziurtagiri akademikoetan:

- ◆ Konbalidatua, konbalidatuak izan diren modulu horien kasuan.
- ◆ Salbuetsita, lan-esperientziarekin bat etortzeagatik salbuetsi den Lantokiko Prestakuntza Moduluaren kasuan.
- ◆ Salbuespen partziala, lan-esperientziarekin bat etortzeagatik salbuespen partziala izan duen Lantokiko Prestakuntza moduluaren kasuan.

Konbalidazio edo salbuespenari buruzko ebazpenaren kopia bat ikaslearen espedienteari gehituko zaio. Jatorrizkoa interesatuari entregatuko zaio.

Konbalidatutako edo salbuetsitako moduluak ez dira zenbatuko, zikloaren batezbesteko nota kalkulatzearen ondorioetarako. *(Konbalidatutako moduluak bi zikloetan ematen badira, salbuespena egin liteke, argitaratzearen zain dagoen araudiak horrela agertuko balu).*

Lanbide Heziketako Zuzendaritzari errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio era negatiboan ebatzi diren konbalidazio- edo salbuespen-eskaeren kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ikastetxeko zuzendariaren ebazpenean adierazi beharko da epe hori.

5.2. LOGSE zikloetako moduluen konbalidazio eta salbuespenak.

Apirilaren 30eko 777/1998 errege dekretuak (1998ko maiatzaren 8ko BOE) eta 2001eko abenduaren 20ko aginduak (2002ko urtarrilaren 9ko BOE), ECD/1842/2002 aginduaren bidez (2002ko uztailaren 19ko BOE) zuzenduak, arautuko dituzte 1/1990 lege organikotik (LOGSE) eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzak konbalidatzeko eskaerei buruzko ebazpenak.

Ikaslea matrikulatzen den ikastetxe publikoko edo ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxe pribatuari atxikitako ikastetxe publikoko zuzendaritzak ebatzi behar dituzte, BETIERE, konbalidazio eta salbuespen horiek. Azken kasu honetan, ikastetxe pribatuko zuzendaritzak, ikasleak alde aurretik eskatu ondoren, kudeatuko ditu eta atxikita dagoen ikastetxeari bidaliko dizkio, ezarrita dauden epeetan.

Urriaren 3ko 1/1990 lege organikotik, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkotik, eratorritako heziketa-zikloetako lanbide-moduluak ematen dituzten eta lege organikotik beretik (LOGSE) eratorritako lanbide-moduluak egiten dituzten ikasleek eskatu ahal izango dituzte.

Lanbide Heziketako LOGSE heziketa-zikloren bat guztiz edo partzialki gainditu izanez gero, 2001eko abenduaren 20ko aginduak, urriaren 3ko 1/1990 lege organikotik eratorritako Berariazko Lanbide Heziketako ikasketen konbalidazioak zehazten dituenak (2002ko urtarrilaren 9ko BOE), eta uztailaren 9ko ECD/1842/2002 aginduak (19ko BOE), aurrekoaren akatsak zuzentzen dituenak, jasotzen dituzte egin daitezkeen konbalidazioak, aipatutako agindua indarrean sartu baino lehenago argitara emandako Lanbide Heziketako tituluetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko LOGSE modulu espezifikoaren kasuan (Hizkuntza Teknikoa eta CMC), apirilaren 30eko 777/1998 errege dekretuak, izen, iraupen eta gaitasun terminal berberetako moduluak konbalidatzeko irizpide orokor batera eramaten duenak, (1998ko maiatzaren 8ko BOE) adierazitako formula orokorra aplikatuko da. Erabili beharreko irizpide orokor gisa, lanbide-arlo beraren barruan eskatzen badira, aplikatuko dira.

Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak, lehen adierazitako bidea erabiliz, ebatzi beharko ditu lehen aipatutako arauetan agertzen ez diren konbalidazioak (Erkidegoaren berezko moduluenak izan ezik). Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzak ebatziko ditu araudian sartzen ez diren EAEko berezko moduluen konbalidazioak.

Araudian jasotzen ez diren kasuak hauek izan daitezke:

- ◆ Urriaren 3ko 1/1990 lege organikoak (LOGSE) xedatutakoaren babesean eman eta 2001eko abenduaren 20tik aurrera argitara eman diren Lanbide Heziketako tituluetan sartuta dauden lanbide-moduluak eskatzen diren konbalidazioak.

- ◆ Beste ikasketa batzuk (unibertsitate-ikasketak edo eskatzaileak konbalidatzeko modukotzat jotzen dituen beste batzuk) erakutsiz eskatutako konbalidazioak.
- ◆ LOGSE moduluen konbalidazioak, gainditu diren beste LOE ziklo batzuen moduluak erakutsiz.

5.3. LOE zikoetako moduluen konbalidazio eta salbuespenak.

Ondorengo arauetan adierazitakoaren arabera ebatziko dira 2/2006 lege organikotik (LOE) eratorritako Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako eskatu diren konbalidazioak:

- ◆ 1538/2006 errege dekretua, IX. kapituluaren 44. artikulua eta hurrengoak.
- ◆ EAEn arau korrelatiboa ematen da, lehen aipatutako 32/2008 dekretuaren VI. kapituluaren 27. artikuluen bidez.
- ◆ 2010eko otsailaren 9ko aginduan (12. artikulua) ere jorratzen da gaia.

Arau hauetaz guztietaz gain, titulu bakoitzak, bere araudi erregulatzaillean, kasu espezifiko guztiak berriz agertzen ditu:

- ◆ Titulu bakoitza arautzen duen errege dekretua, IV. kapituluaren 15. eta 16. artikuluetan (konbalidazioak, salbuespenak eta baliokidetasunak) eta IV. eranskina. V A) eranskinak agertzen ditu haien kreditatzeak moduluen konbalidazioa eragin ahal duen konpetentzia-unitateak.
- ◆ EAEn curriculumak arautzen dituzten dekretuak, heziketa-ziklo bakoitzerako konbalidazioak agertzen dituztenak, IV. kapituluaren eta V. eranskinean. VI. eranskinaren I. atalak agertzen ditu haien kreditatzeak moduluen konbalidazioa eragin ahal duen gaitasun-unitateak eta 2. atalak moduluak eta gaitasun-unitateak agertzen ditu.

Aurkeztutako eskaerak araudi honetan sartzen badira, eskatzailea matrikulatu den ikastetxeko zuzendariak ebatziko ditu, ikastetxe publikoa edo pribatua izan. Beste kasu batzuetan Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak ebatzi beharko ditu eta, betiere, interesatuaren eskariz eta matrikulatuta dagoen ikastetxean emango zaio tramiteari hasiera, lehenago adierazi denez. Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzak ebatziko ditu araudian sartzen ez diren EAEko berezko moduluen konbalidazioak.

Ondorioz, azaldutako guztia horrela **labur** dezakegu:

- ◆ Titulua arautzen duen errege dekretuaren IV. eranskinean edo EAEn curriculumari buruzko dekretuaren V. eranskinean adierazten diren LOE zikloetako moduluak konbalidatu ahal izango dira egiaztatzen diren LOGSE zikloetako moduluekin.
- ◆ [Baliozkotzea izango dute modulu profesionalek, hainbat LOE heziketa-ziklori komunak direlarik, izen, iraupen, eduki, ikasketako emaitzatzat adierazitako helburu eta ebaluazioko irizpide berdinekin, Errege Dekretuetan ezarrita; horien bidez finkatzen dira Lanbide Heziketako \(LOE\) tituluaren gutxiengo irakaskuntzak.](#)

Horren harira, baliozkotu egin beharko dira baita beste Autonomi Erkidego batzuetan egindako zikloetako espedienteak dakartzaten ikasleei dagozkien moduluak ere, iraupena EAEn ezarritakoarekin bat ez datorren arren. EAeko bertako moduluak izanez gero, curriculumeko Dekretu bakoitza hartuko da erreferentziazat.

- ◆ Izen, iraupen, eduki eta helburu bereko LOE heziketa-ziklo desberdinetako lanbide-moduluak, Lanbide Heziketako (LOE) tituluen gutxienezko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege dekretuetan edo EAeko dekretu korrelatiboetan ezarritakoak, konbalidatu ahal izango dira. Horretarako, konbalidatu beharreko eta egindako zikloei buruzko dekretuen VI. eranskinaren 1. eta 2. atalak erabiliko dira. Atal horietan kompetentzia-unitateak eta heziketa-ziklo bakoitzean elkartutako lanbide-moduluak lotzen dira.
- ◆ Behar bezala egiaztatutako kompetentzia-unitateen moduluak konbalidatu ahal izango dira, EAEn curriculumari buruzko dekretuak VI. eranskinean edo titulua arautzen duen errege dekretuak V A) eranskinean xedatutakoaren arabera.
- ◆ LOEko Lanbide Heziketaren edozein titulutan Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea lanbide-modulua baliozkotu ahal izango da, betiere abenduaren 15eko 1538/2006 errege dekretuak ezarritako baldintzak betetzen badira: titulua erabilari lotutako kompetentzia-unitate guztiak egiaztatzea eta proiektuaren modulua gainditzea, lan-esperientziako urte bat, gutxienez, egiaztatzea eta prebentzio-jardueraren oinarriko funtzioak betetzeko prestakuntza egiaztatzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 errege dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, xedatutakoaren arabera. Prebentzio hori lan-arriskuen prebentzioko teknikariaren ziurtagirian, oinarriko mailan, konkretatzen da, aipatutako errege dekretuaren bidez erregulatua.
- ◆ LOEko Lanbide Heziketaren edozein titulutan Ingeles Teknikoa lanbide-modulua baliozkotu ahal izango da, betiere titulua erabilari lotutako kompetentzia-unitate guztien egiaztatzea, ezagutu eta ebaluatzeko sistemaren bidez, proiektuaren modulua gainditu izana eta lan-esperientziaren hiru urte egiaztatzen badira.
- ◆ Ingeles Teknikoa lanbide-modulua Ingeleseko B2 maila, horretarako eskuduntzak dituen erakunde batek emandako ziurtagiri baten bidez, egiaztatzen dutenei ere baliozkotuko zaie:
 - HEoren maila aurreratua edo HEoren plan zaharreko 4. kurtsoa.
 - Cambridge-ko Unibertsitateko First Certificate in English (FCE).
 - Pearson Test of English (PTE), level 3
 - Trinity College ISE 2
- ◆ Enpresa eta Ekimen Ekintzailea lanbide-modulua baliozkotu ahal izango da, titulua erabilari lotutako kompetentzia-unitate guztiak, proiektuaren modulua gainditu izana eta lan-esperientziaren hiru urte egiaztatzen badira.
- ◆ Ikasketa horiei lotutako urtebeteko lan-esperientzia bat, denbora osoz, egiaztatzen dutenei Lantokiko Prestakuntza modulua egitetik salbuetsi ahal izango zaie, erabat

edo partzialki. Esperientzia hori egiaztatzeko, langilea egon den enpresako edo enpresetako pertsona batek, horretarako eskuduntzak dituenak, ziurtagiri bat eman beharko du, kontratuaren iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egin den aldia era espezifikoan agertuko dituenak. Langile autonomoen kasuan, zergak altaziurtagiri bat aurkeztu beharko dute zergak derrigorrean ordaindu behar dituztenen erroldan, urtebeteko gutxienezko antzinatearekin, aurrera eramandako jardueren adierazpen pertsonalaz gain.

Horregatik, badira ikastetxean alde ebatzi behar ez diren zenbait kasu argi. Ikasleak baliozkotzeko eskubidea duela uste badu, lehen aipatutako aparteko bidearen bitartez eskatuko du. Ondorengoak ez dira ikastetxean onartuko:

- ◆ Beste ikasketa batzuk (unibertsitate-ikasketak edo eskatzaileak baliozkotzeko modukotzat jotzen dituen beste batzuk) egiaztatuz eskatutako baliozkotzeak.
- ◆ Gainditu diren eta EAEko curriculumari buruzko dekretuaren V. eranskinean agertzen ez diren LOE moduluen baliozkotzeak, eranskin horretan agertzen diren LOGSEko beste ziklo batzuetako moduluen bidez zeharkako lotura egon arren (2001eko abenduaren 20ko aginduaren eranskinean xedatutakoaren arabera).
- ◆ LOE zikloetako Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak baliozkotzea, LOGSE zikloetako Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak edo eskatzaileak egokitzen jotzen dituen beste egiaztagiriri osagarri batzuk erakutsiz, geroago adieraziko den kasuan izan ezik (oinarrizko prestakuntza PRLn).
- ◆ **Baliozkotze “gurutzatuak” familia profesional bereko zikloen artean. Adibidez:**

LOE	2010-11	LOGSE
Agencias de Viajes y Gestión de Eventos	1	Agencias de viajes (1400h)
Guía, Información y Asistencia Turísticas	1	Información y Comerc Turísticas,(1400h)

Ikasle batek “Información y comercialización turística” LOGSE ziklo bat dakarrenean “Agencias de viajes y gestión de eventos” LOE ziklo bat ikasi nahian, ez dago ezein baliozkotzeri ekiterik ikastetxean; izan ere, aipatu LOGSE zikloarekin erlazionatua dagoen LOE zikloa da “Guía, información y asistencia turística”, eta hori ez da ageri baliozkotzeen zerrendan. Komeni da berrikustea LOE tituluko Errege Dekretu bakoitzaren 1 artikulua, 2. puntua, non adierazten baita zein LOGSE ziklo ordezkatzeko duen. Kasuon, interesdunak eskatu behar lioke baliozkotzea MECeko LHko Zuzendaritza Nagusiari.

AZAROAREN 23KO 305/2010 DEKRETUARI V. ERANSKINA

BALIOZKATZEAK MODULU PROFESIOALEN ARTEAN, AZKENOK URRIAREN 3KO 1/1990 LEGE ORGANIKOAREN BABESPEAN EZARRITA, BAITA MAIATZAREN 3KO 2/2006 LEGE ORGANIKOAREN BABESPEAN ERE

<i>Módulos profesionales del ciclo formativo EN INFORMACIÓN Y COMERCIALIZACIÓN TURÍSTICAS (LOGSE 1/1990)</i>	<i>Módulos profesionales del ciclo formativo GUÍA, INFORMACIÓN Y ASISTENCIAS TURÍSTICAS (LOE 2/2006)</i>
<i>Diseño y comercialización de productos turísticos locales y regionales</i>	<i>0387 Diseño de productos turísticos 0173 Marketing turístico 0171 Estructura del mercado turístico 0384 Recursos turísticos</i>
<i>Información turística en destino</i>	<i>0171 Estructura del mercado turístico 0385 Servicios de información turística 0172 Protocolo y relaciones públicas</i>
<i>Productos y destinos turísticos nacionales e internacionales</i>	<i>0383 Destinos turísticos 0384 Recursos turísticos</i>
<i>Asistencia y guía de grupos</i>	<i>0383 Destinos turísticos 0384 Recursos turísticos</i>
<i>Lengua extranjera</i>	<i>0179 Inglés</i>
<i>Segunda lengua extranjera</i>	<i>0180 Segunda lengua extranjera</i>
<i>Formación en Centro de Trabajo</i>	<i>0391 Formación en Centros de Trabajo</i>

5.4. Baliozkotzeen kasu arrunt samar batzuk.

5.4.1.- LOE ziklo bateko Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak, EIE eta Ingeles Teknikoa moduluak baliozkotzea.

- LOGSEko Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak moduluaren eta LOEko Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak moduluen arteko baliozkotzea: ezin dira inoiz ere baliozkotu, Lan Arriskuen Prebentzioren oinarritzko funtzioak betetzeko indarreko legeriaren arabera prestakuntza-ziurtagiria erakusten den kasuetan izan ezik.
- LOEko Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak eta EIE moduluen eta LOEko Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak eta EIE moduluen arteko baliozkotzea:

kasu guztietan baliozkotzen dira. (curriculumari buruzko dekretuaren 10. artikulua 1. atala, goi mailako zikloen kasuan, edo EAeko curriculum bakoitzaren 9. artikulua 1. atalean erdi mailako zikloen kasuan). [LOGSE zikloen kasuan ez bezala, baliozkotze horietarako ez da ardura moduluak maila ezberdineko zikloen artean izatea.](#)

- LOE zikloen arteko Ingeles Teknikoa: EAeko curriculum-dekretuen 10.1. artikuluan (goi mailako zikloetarako) eta 9.1. artikuluan (erdi mailako zikloetarako) adierazitakoaren arabera jokatu behar da. Edukien, ikaskuntza-emaitzen eta ebaluazio-irizpideen atalak konparatzean egongo da gakoa eta baieztatu erantzuna eman ahal izango zaio maila eta lanbide-arlo bereko zikloak baliozkotzeko eskaerari.
- LOEko Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak baliozkotu ahal da Konpetentzia Ebaluatu eta Ezagutzeko Sistematik (5/2002 legetik, hots, ezagutzeko sistema berritik, eratorritakoa) datozen ikasleen kasuan, EAeko curriculum-dekretuak 10. artikulua 4. atalean xedatutakoaren arabera:
 - Tituluaren perfilari lotutako konpetentzia-unitate guztiak egiaztatu izana.
 - Proiektuaren modulua gainditu izana.
 - Lan-esperientziaren urte 1, gutxienez, izatea.
 - PRLn oinarritako prestakuntza-ziurtagiria.
- Aurreko atalean aipatutako pertsonentzat (Konpetentzia Ezagutzeko Dispositibotik datozenak) antzeko baldintzak ezartzen dira EIE eta Ingeles Teknikoa moduluak baliozkotzeko:
 - Tituluaren perfilari lotutako konpetentzia-unitate guztiak egiaztatu izana.
 - Lan-esperientziaren 3 urte bi moduluertarako.
 - Proiektuaren modulua gainditu izana Ingeles Teknikoaren kasuan.

OHAR GARRANTZITSUA:

Nolabaiteko kontraesana ikusten da Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak eta Ingeles Teknikoa baliozkotzeko Konpetentzia Ebaluatu eta Ezagutzeko Sistematik datozen pertsonen kasuan exijitutako baldintzen artean. Alde batetik, proiektuaren modulua gainditu izana exijitzen ari da modulu horiek baliozkotzeko baina, heziketa-zikloko modulu GUZTIAK, baliozkotzeko aurkezten diren Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak moduluak besteak beste, gaindituta eduki behar dira proiektuaren modulu hau (eta Lantokiko Prestakuntza)egin ahal izateko. Orduan interpretazio hau egin beharko litzateke (“in dubio pro reo “): Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak eta Ingeles Teknikoa gainditu gabe eduki arren, proiektua (eta, salbuetsita ez badago, Lantokiko Prestakuntza) egiteko baimena eman behar zaio ikasleari, betiere baliozkotzeko baldintzak betetzen baldin baditu. Baliozkotzea azken aktan agertuko da, proiektuaren ebaluazio positiboarekin batera. Ikastetxeak, bere aukeren arabera, Lantokiko Prestakuntzaren kasuan bezala, antolatuko du proiektuaren modulua gauzatzeko prozesua.

5.3.2.- LOE ziklo bateko Lantokiko Prestakuntza modulua baliozkotzea.

Bai, baliozkotu ahal da, betiere baliozkotze hori zikloaren curriculumuma ezartzen duen dekretuaren V. eranskinean agertzen bada. Baliozkotzea aktan dokumentatuko da, Lantokiko Prestakuntzara sartzeko baldintzak betetzen ez diren arren. Hala ere, horrek ez du proiektuaren modulua, dagoenean, egin ahal duenik esan nahi, horretarako sartzeko baldintzak (modulu guztiak gaindituta izatea) bete behar direlako.

5.3.3.- LOE ziklo bateko moduluak baliozkotzea, konpetentzia-unitateak egiaztatuta edukitzen badira.

Alde ebatziko dira, betiere EAeko curriculum-dekretuaren VI. eranskinean edo titulua arautzen duen errege dekretuaren V A) eranskinean espresuki agertzen badira. Lan-agintariak emandako egiaztatzearen agiri ofiziala erakutsi beharko da (34/2008 errege dekretua, urtarrilaren 31ko BOE).

LANBIDE HEZIKETAKO BALIOZKOTZEAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA

	ERAKUTSITAKO PRESTAKUNTZA	EGIN BEHARREKO PRESTAKUNTZA	
IKASTETXEKO ZUZENDARITZA	MODULUAK (LOGSE)	MODULUAK (LOGSE)	-2001eko ABENDUAREN 20ko AGINDUA BAINO LEHENAGO ARGITARA EMANDAKO TITULUAK (LOGSE) ETA AKATSAK ZUZENTZEARI BURUZKO ECD/1842/2002 AGINDUA. – <u>(Ikastetxe publikoa)</u>
	MODULUAK (LOGSE)	MODULUAK (LOE)	ELKARREN BALIOKIDE DIREN TITULAZIOEN ARTEAN (EGITEN DEN ZIKLOAREN CURRICULUM-DEKRETUAREN 10. ARTIKULUA ETA V. ERANSKINA. — <u>(Ikastetxe publikoa edo pribatua)</u>
	MODULUAK (LOE)	MODULUAK (LOE)	GUZTIENTZAKO MODULUAK. KONPETENTZIA-UNITATEAK EGIAZTATZEN DITUZTEN MODULUAK (EGITEN DEN ZIKLOAREN CURRICULUM-DEKRETUAREN 10. ARTIKULUA ETA VI. ERANSKINAREN 1.atala). <u>(Ikastetxe publiko edo pribatua)</u>
LANBIDE HEZIKETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	MODULUAK (LOGSE)	MODULUAK (LOGSE)	-2001eko ABENDUAREN 20ko AGINDUA BAINO GEROAGO ARGITARA EMANDAKO TITULUAK.
	MODULUAK (LOGSE)	MODULUAK (LOE)	–ELARREN BALIOKIDE EZ DIREN TITULAZIOEN ARTEAN. “LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA “ MODULUA SARTZEN DA.
	MODULUAK (LOE)	MODULUAK (LOGSE)	-KASU GUZTIETAN.
	MODULUAK (LOE)	MODULUAK (LOE)	-KONPETENTZIA-UNITATEEI LOTUTA EZ DAUDEN MODULUAK.
	BESTE BAT	MODULUAK (LOGSE ETA LOE)	-KASU GUZTIETAN

6.- MATRIKULA BALIOGABETZEA ETA DEIALDIARI UKO EGITEA.

2010eko otsailaren 19ko aginduak 13. artikuluan eta urtero argitara ematen diren matrikulazio-aginduetan ezarritako baldintzetan, ikasleek dute kurtsoko **matrikula baliogabetzeko** eskubidea. Matrikula baliogabetzeak eskatzailea matrikulatuta dagoen lanbide-modulu guztiei uko egitea ekarriko du eta, ondorioz, pertsona horri ez zaio ebaluatuko, ezta ikasturtearen bukaerako ebaluazio-aktetan agertu ere. Ikastetxe publikoetan matrikulatuta dauden pertsonak ikastetxe horretako zuzendariari bidaliko diote eskaera. Eskatzailea ikastetxe pribatu batean matrikulatuta badago, atxikita dagoen ikastetxe publikoko zuzendariari bidaliko dio eskaera.

Matrikula baliogabetzeko eskaera, lehen aipatutako aginduaren VIII. eranskinean agertzen den ereduan abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu eta agirien bidez egiaztatu beharko dena, alde ebatziko da, betiere zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen bada:

- Ikaslearen gaixotasun luzea.
- Ikastea behar bezala eragozten duen lanpostu batean hastea.
- Normal ikastea eragozten duten zirkunstantzia pertsonal edo familia mailakoak.
- Zuzendariak kontuan hartzen dituen beste aparteko zirkunstantzia batzuk.

Matrikula baliogabetzeko eskaerari buruzko ebazpenak behar bezala arrazoituta egon beharko du, ikaslea ados egon ezean defenditzeko eta erreklamazioa egiteko aukera emateko asmoz, eta matrikulatuta dagoen ikastetxearen bidez jakinaraziko zaio interesatuari. Ebazpenaren kopia bat interesatuaren espedienteari gehituko zaio.

Halaber, ikasleak du zenbait lanbide-moduluren ebaluazioari eta kalifikazioari **uko egiteko** eskubidea. Eskubide hori, gehienez ere, bi aldiz erabili ahal izango da, zikloko modulu bakoitzeko. Matrikulatuta dagoen ikastetxe publiko edo pribatuko zuzendariari egin ahal izango zaio lanbide-moduluen deialdi bati uko egiteko eskaera eta ikasleak izenpetuko du. Horretarako, lehen aipatutako aginduaren IX. eranskinaren eredia erabiliko du eta eredu horri agirien bidezko egiaztatzea gehituko dio, eskaera arrazoitzeko. Ikasleari orientabidea ematea komeni da, haren agirian eskaera justifikatzeko arrazoiak azal ditzan. Agiri hori uko egiten zaion ebaluazio-data baino hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztuko da. Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariak ebatziko du eskaera eta, matrikula baliogabetzeko lehen aipatutako zirkunstantzietakoren bat gertatuz gero, aldeko ebazpena emango du.

Deialdiari uko egiteko eskaerari buruzko ebazpenak ondo arrazoituta egon beharko du, ikaslea ados egon ezean defenditzeko eta erreklamazioa aurkezteko aukera emateko asmoz, eta interesatuari jakinaraziko zaio. Ebazpenaren kopia bat espedienteari gehituko zaio.

Ikaslea uko egiten dion moduluan bi aldiz (bi ikasturtetan) matrikulatuta egon bada eta gainditu ez badu, klasera joateko eskubidea galduko du, deialdiak agortu ez arren. Horrek ohiko epean matrikulatu ahal izango dela eta gainontzeko ikasleekin batera ebaluatuko zaiola esan nahi du, deialdiak agortu arte baina klasera joateko eskubiderik gabe.

2010eko otsailaren 19ko aginduak 13. artikulua 3. puntuan xedatzen duen legez, ikastetxeko zuzendariak, ebaluazio-batzordearen proposamenez, ofizioz hartu ahal izango du ikasleak, eskaera egin gabe, deialdiari uko egiteko erabakia. Aparteko jarduera honek, aparteko egoeretan ikasleen interesak babesteko gauzatu ahal izango denak, behar bezala arrazoituta egon beharko du eta interesatuari jakinaraziko zaio. Ebazpenaren kopia bat ikaslearen espedientean gordeko da.a

7.- DEIALDIEN KOPURURIK HANDIENA MODULU PROFESIONAL BAKOITZERAKO

1538/2006 EDren 15. artikuluan ezartzen da deialdien kopururik handiena modulu profesional bakoitzerako:

“4. En régimen presencial, cada módulo profesional podrá ser objeto de evaluación en cuatro convocatorias, excepto el de formación en centros de trabajo que lo será en dos”.

Deialdiok zenbatze aldera, kontuan eduki beharra dago heziketa zikloetako eskaintzetan gastatutako guztiak, tituluak lortzeko probenak izan ezik (normalean “libreak” deritzete). Horrek esan nahi du ezen aurrez aurreko eskaintza osoan, eskaintza partzialean eta distantzia telematikoko modalitatean gastatutakoak zenbatuko direla.

Ikasle batek moduluren bateko deialdiak agortu dituenean, baita aipatu artikulua hizpide duen eta sor daitekeen ezohikoa ere, ezin matrikulatuko da heziketa-zikloan aipatutako ezein modalitatean, bere garaian titulua lortzeko xedez iragar litezkeen probetan izan ezik.

8.- DEIALDI ESPEZIFIKOAK LOGSE ZIKLOEN IRAUNGITZE-PROZESUAN

2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK 2. artikulua 3. eta 4. ataletan xedatutakoaren arabera, LOGSE heziketa-zikloko kurtsua iraungi ondoren, gainditu gabeko lanbide-moduluak dituzten eta LOGSE zikloaren ordean dagoen LOE heziketa-zikloan matrikulatu ez diren ikasleek bi deialdi izango dituzte hurrenez hurren bi ikasturteetako bakoitzean, lanbide-modulu horiek gainditu ahal izateko. Horrek hau esan nahi du: 2009-10 ikasturtean ezarritako zikloetarako, bi deialdi, gehienez ere, izateko eskubidea edukiko du 2009-10 ikasturtean; beste bi deialdi izango ditu 2010-11 ikasturtean, lehen kurtsoko gainditu gabeko moduluetarako. Halaber, bigarren kurtsoko gainditu gabeko moduluetarako 2010-11 eta 2011-12 ikasturteetan. Irizpide bera LOE zikloak ezartzen diren hurrengo ikasturteetan ere aplikatuko da.

Halaber, **gaueko erregimenean** matrikulatuta dauden ikasleek bi deialdi izango dituzte hirugarren kurtsua iraungi ondorengo bi ikasturteetako bakoitzean, kurtsu horretako gainditu gabeko moduluak gainditzeko.

Ikastetxe bakoitzak 2. kurtsoko lanbide-moduluetarako deialdien probak antolatuko ditu, Lantokiko Prestakuntza modulua martxotik ekainera bitarteko ohiko aldiaren egin ahal izateko moduan, sartzeko baldintzak betez gero. Ikasturtearen bukaeran baldintzak betetzen dituzten ikasleentzat, Lantokiko Prestakuntza hurrengo ikasturtearen lehen zatian antolatu ahal izango da eta ebaluazioa eta kalifikazioa berehalako ebaluazio-saioan egingo dira.

2010eko otsailaren 19ko AGINDUAK 2. artikularen 3. eta 4. ataletan xedatzen duenez, kurtso bakoitzerako ezarritako 4 deialdi espezifikoak agortu ondoren, ikasleak ezin izango du LOGSE titulua eskuratu eta LOGSE zikloaren ordezkiko LOE ziklora sartu ahal izango da matrikulatzeko ohiko epeetan, behar diren baliozkotzeekin.

9. IZENA BALDINTZAPEAN EMATEKO KASUEI BURUZKOA.

Behin-behineko legezko bolante baten bidez izena eman duten eta haien kasketen behin-betiko homologazioa aurkeztea falta zaien ikasleen kasuetan, “TITULUA HOMOLOGATZEAREN ZAIN “ kalifikazioa emango zaie moduluei, hiruhileko ebaluazio-aktetan lortutako kalifikazioekin batera (akronimoak, gidoia, zenbaki-oharra), onartutako homologazioari buruzko ebazpena aurkeztu ondoren kalifikazioak kontuan hartu ahal izateko. Homologazioari buruzko ebazpena interesatuak eskatutako terminoetan eman ezean, lortutako kalifikazioak eta matrikula bera eraginik gabe geratuko dira eta, horregatik, ikastetxeak **azken aktetan baliogabetu eta kenduko ditu.** Hau berariazko ezezko ebazpenaren bidez edo lehen azken ebaluazioaren datan gertatuko da. Ikastetxearen aldetik, izena baldintzapean emateko kasuen jarraipena aldizka egitea komeni da.

Prozesu hau 1996ko apirilaren 30eko aginduaren xedapen gehigarri baten, 1988ko martxoaren 30eko agindua aldatzen duenaren, bidez arautzen da (maiatzaren 8ko BOE). Xedapen horretan puntu hauek adierazten dira:

5. Ondorengo hauek dira BOLANTEA indarrean egoteko gehienezko epeak:

a) Izena baldintzapean emateko, sei hilabete, Erregistro Unitateak zigilatatu zuen datatik kontatzen hasita.

b) Izena baldintzapean eman ondoren, izena baldintzapean eman den ikasturtean bakarrik egongo da BOLANTEA indarrean, azken ebaluazioaren akta izenpetzen den data arte.

Edonola ere, aurreko paragrafoetan adierazitako epeak pasa ondoren homologatu edo baliozkotzeko eskaerari buruzko berariazko ebazpena eskatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik eman ez bada, prozedura tramitatzeko organo eskudunak beste BOLANTE bat eman ahal izango du, ofizioz edo interesatuaren eskariz. BOLANTE berria zuzenean bidaliko zaio ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeari eta berorretan indarrean dagoen epea, ikasturte batetik gorakoa ezin izango dena, agertuko da.

Administrazioak epea espresuki luzatzen duen kasu honetan, ikasturteak bukatu ondoren jarraitzen du indarrean, azken aktan/aktetan “TITULUA HOMOLOGATZEAREN ZAIN “ idatziko da.

Akta hauek izenpetu ondorengo datan aldeko ebazpena entregatuz gero, ikastetxeko idazkariak akta osagarri bat egingo du. Akta horretan lortutako behin-behineko kalifikazioak, orain behin-betiko bihurtuak, transkribatuko dira eta kalifikazioei eta haien ondorioei baliagarritasuna emango zaie. Aldeko ebazpen hori eman ezean, hurrengo ikasturtearen azken ebaluazioa egiten den unean erregularizatu beharko da egoera, matrikula baliogabetuz eta ikaslea aktatik at utziz.

2011ko irailaren 1az geroztik, atzerrian gauzatutako ikasketak oso-osorik edo zati batean homologatzeko izapideak egingo dira Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko bulegoan bertan, eta ebatziko Hezkuntza Saileko Antolamendu Akademiko zerbitzuan, Lakuan.

ERANSKINAK

LOE eta LOGSE zikloetan ebaluazio-prozesurako Ikuskaritzaren webean dauden agiriak(<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-inspec/es>)

LOGSEko Lanbide Heziketaren aktak.

LOGSEko Lanbide Heziketaren espediente akademikoa.

I. eranskina: LOEko aparteko deialdiaren eskaera.

II. eranskina: LOEko ikaslearen espediente akademikoa.

III. eranskina: LOEko ebaluazio-akta.

IV. eranskina: LOEren ziurtagiri akademiko ofiziala.

V. eranskina: LOEren ziurtagiri akademiko ofiziala (partziala).

Banakako ebaluazioari buruzko orientabide-txostena.

VI. eranskina: lanbide-moduluak baliozkotzeko eskaera LOEko heziketa-zikloen artean.

VII. eranskina: lanbide-moduluak baliozkotzeko eskaera, LOEko kompetentzia-unitateekin bat etortzeagatik.

VIII. eranskina: LOEko matrikula balioqabetzeko eskaera.

IX. eranskina: LOEko lanbide-moduluaren ebaluazioari eta kalifikazioari uko egiteko eskaera.

X. eranskina: LOGSEko ziurtagiri akademiko ofiziala.

XI. eranskina: LOGSEko ziurtagiri akademiko ofiziala (partziala).

Matrikula baliogabetzeko edo deialdiari uko egiteko eskaerak adierazteko agirien proposamenak, VIII. eta IX. eranskinetan oinarrituak:

MATRIKULA BALIOGABETZEKO ESKAERA-EREDUA

Jn./and. _____

NANa/NIE: _____ Telefonoa: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ Probintzia: _____ Posta-kodea: _____

AZALTZEN DU:

-----heziketa-zikloko -----
--kursoan matrikulatuta
dagoela.

ESKATZEN DU:

Matrikula baliogabetzea, ondorengo arrazoiarengatik:

- € Gaixotasun fisiko edo psikiko luzea.
 - € Behar bezala ikastea eragozten duen lanpostu batean hasi izanagatik.
 - € Behar bezala ikastea eragozten duten betebeharrak edo familia mailakoak.
 - € Eskaera egiten zaion ikastetxeko zuzendariak ikusitako beste aparteko zirkunstantzia batzuk:
-
-

Horretarako, dokumentazio hau aurkezten du:

- NANaren fotokopia.
 - Zehaztutako arrazoiak
-

_____ a _____ de _____ de _____

Izenpetua: _____

-----(-e)ko ZUZENDARI _____
jn./and.

LANBIDE-MODULUEN EBALUAZIOARI ETA KALIFIKAZIOARI UKO EGITEKO
ESKAERA-EREDUA.

jn/and. _____

NANa/NIE: _____ Telefonoa: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ Probintzia: _____ Posta-kodea: _____

AZALTZEN DU:

-----heziketa-zikloko----- _____
-kurtsuan matrikulatuta _____
dagoela _____

ESKATZEN DU:

Ondorengo lanbide-moduluen ebaluazioari eta kalifikazioari uko egitea:

UKO EGITEN ZAION MODULUA	Uko egiten zaien deialdiak (*)			

(*) Deialdien kodeak:

G1: 1.eko ohiko azkena.

G2: 1.eko aparteko azkena.

G3: Lantokiko Prestakuntzara sartzeko ohikoa.

G4: 2.eko apartekoa.

G5: ziklo mailako ohiko azkena.

G6: ziklo mailako aparteko azkena.

L1: 1. kurtsoko 1. azken ebaluazioa.

L2: 1. kurtsoko 2. azken ebaluazioa.

L3: 2. kurtsoko 1. azken ebaluazioa.

L4: 2. kurtsoko 2. azken ebaluazioa.

arrazoi honengatik:

€ Gaixotasun fisiko edo psikiko luzea.

€ Behar bezala ikastea eragozten duen lanpostu batean hasi izanagatik.

€ Behar bezala ikastea eragozten duten betebeharrak pertsonal edo familia mailakoak.

€ Eskaera egiten zaion ikastetxeko zuzendariak ikusitako beste aparteko zirkunstantzia batzuk:

Horretarako, dokumentazio hau aurkezten du:

- NANaren fotokopia.
- Zehaztutako arrazoiak egiaztatzeko dokumentazioa:
- _____

_____ a _____ de _____ de _____

Izpta.: _____

-----(-e)ko
ZUZENDARI jn./and.

LOEko HEZIKETA-ZIKLOAK EZARTZEKO PROZESUAREN EGOERA (2011ko maiatza)

LANBIDE ARLOA	MAILA	LOEko HEZIKETA-ZIKLOAK	EZARRIA 2009_10	EZARRIA 2010_11	EZARTZEKO HIPOTESIA_2011_12	LOGSEko-----zikloa ordezkaten du
Administrazioa eta Kudeaketa	GM	Administrazio-Kudeaketa			1	Administrazio-Kudeaketa (1300h)
Nekazaritza	GM	Lorezaintza eta Loreak			1	Lorezaintza
Nekazaritza	GM	Nekazaritza- eta ekologia produkzioa		1		berria
Nekazaritza	GM	Nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpena			1	Nekazaritza-ustiategi estentsiboak Nekazaritza-ustiategi intentsiboak Abeltzaintza-ustiategiak
Eraikuntza eta Obra Zibila	GS	Eraikuntza-Proiektuak			1	Eraikuntza-Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
Elektrizitatea eta Elektronika	GM	Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak	1			Ekipo eta Instalazio Elektronikoak
Elektrizitatea eta Elektronika	GM	Telekomunikazio-Instalazioak		1		berria
Elektrizitatea eta Elektronika	GS	Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak			1	Instalazio elektroteknikoak
Energia eta Ura	GS	Energia-Eraginkortasuna eta Eguzki-Energia Termikoa.	1			berria
Fabrikazio Mekanikoa	GM	Mekanizazioa	1			Mekanizazioa
Fabrikazio Mekanikoa	GM	Soldadura eta Galdaragintza	1			Soldadura eta Galdaragintza
Fabrikazio Mekanikoa	GS	Eraikuntza Metalikoak	1			Eraikuntza Metalikoak
Fabrikazio Mekanikoa	GS	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua		1		Proiektu Mekanikoen Garapena
Fabrikazio Mekanikoa	GS	Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	1			Mekanizazio bidezko Produkzioa
Ostalaritza eta Turismoa	GM	Sukaldaritza eta Gastronomia	1			Sukaldaritza
Ostalaritza eta Turismoa	GM	Jatetxe Arloko Zerbitzuak	1			Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak (1400h)
Ostalaritza eta Turismoa	GS	Turismo-Ostatuen Kudeaketa	1			Ostatuak (1400h)
Ostalaritza eta Turismoa	GS	Bidaia-Agentziak eta Gertakarien Kudeaketa		1		Bidaia-Agentziak (1400h)
Ostalaritza eta Turismoa	GS	Turismo-Gida, Informazioa eta Laguntza		1		Turismo-Merkaturatzea eta Informazioa(1400h)
Ostalaritza eta Turismoa	GS	Jatetxe Arloko Zerbitzuen Zuzendaritza			1	Jatetxe Arloa
Ostalaritza eta Turismoa	GS	Sukaldaritzako Zuzendaritza			1	Jatetxe Arloa

Irudi Pertsonala	GM	Estetika eta Edergintza			1	Estetika
Informatika eta Komunikazioak	GM	Sistema mikroinformatikoak eta sareak	1			Informatika-sistemen ustiapena
Informatika eta Komunikazioak	GS	Sareko Informatika-Sistemen Administrazioa		1		Informatika-Sistemen Administrazioa
Informatika eta Komunikazioak	GS	Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena			1	Aplikazio Informatikoen Garapena
Informatika eta Komunikazioak	GS	Web Aplikazioen Garapena			1	Aplikazio Informatikoen Garapena
Elikagaien Industriak	GM	Okintza eta Gozogintza	1			Okintza eta Gozogintza (1400h) Pastelería y panadería (1400h)
Elikagaien Industriak	GS	Elikagaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea			1	Elikagaien Industria
Instalazioa eta Mantentzea	GM	Bero-Instalazioak			1	Hozteko, Girotzeko eta Berotzeko Instalazioak Muntatu eta Mantentzea
Instalazioa eta Mantentzea	GM	Hozteko eta Girotzeko Instalazioak			1	Hozteko, Girotzeko eta Berotzeko Instalazioak Muntatu eta Mantentzea.
Instalazioa eta Mantentzea	GS	Fluido- eta Bero-Instalazioen Proiektuen Garapena	1			Fluido-, Bero- eta Manutentzio-Instalazioen Proiektuen Garapenak.
Instalazioa eta Mantentzea	GS	Instalazio Termikoen eta Fluidoan Mantentzea	1			Eraikin- eta Prozesu-Instalazioak Muntatu eta Mantentzea
Egurra, Altzarigintza eta Kortxoak	GM	Zurgintza eta Altzarigintza			1	Arotzeria eta Altzarigintza Industrialak(1400h)
Osasuna	GS	Analisiaren eta Kalitate-Kontrolaren Laborategia	1			Analisa eta Kontrola
Osasuna	GM	Osasun-Larrialdiak			1	berria
Osasuna	GM	Farmazia eta Parafarmazia	1			Farmazia(1300h)
Gizarte- eta Kultura Zerbitzuak	GS	Haur Hezkuntza	1			Haur Hezkuntza
Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	GM	Jantzigintza eta Moda		1		Jantzigintza(1400h) Patroigintza (1400h)
Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	GM	Patroigintza eta Moda	1			Jantzigintza Industrialeko Prozesuak (1400h)
Garraioa eta Ibilgailuen Mantentzea	GM	Karrozeria	1			Karrozeria
Garraioa eta Ibilgailuen Mantentzea	GM	Ibilgailuen Elektromekanika			1	Ibilgailuen Elektromekanika
Garraioa eta Ibilgailuen Mantentzea	GS	Automozioa		1		Automozioa
			18	8	16	4 berri